

# LAG-EN 1997KO LURRALDE- EREDUA OSATZEN DUTEN OINARRIAK:

## **B** LAG eguneratzeko erronka berriak

- B.1. Iraunkortasuna eta lurraldea
- B.2. Klima-aldaketaren desafioa
- B.3. Berrikuntza eta lurraldea
- B.4. Zentro anitzeko Eskualde Hirirantz

Lurraldearen eraldaketa-prozesuetan hamarkada bat aldi laburra da. Gure lurraldearen oinarritzko osagaiak eta egitura funtsean ez dira aldatu. LAG-Gen Lurralde Ereduak, Nukleo Anitzeko Hiriburu Sistemari, hiri ertainetan eta horien inguruan eratutako eremu funtzionaletan, lurraldearen erabileren eta harrera-gaitasunaren arteko egokitzapenean oinarritutako ingurune fisikoaren kudeaketan eta eremu funtzionalak beren artean eta EAE kanpoaldearekin artikulatzen duen erlazio-sisteman oinarrituta, datozen urteetarako erreferentziako lurralde-eredua izaten jarraitzen du.

Orain, lurralde-eredu hori abiapuntu hartuta, protagonismo handiagoa hartu duten edo eguneratu behar diren elementuak garatzeko eta eraldatzeko garaia da. LAG idatzi zirenean lurraldeari eta gizarteari buruzko eztabaidan ia azaldu ere egiten ez ziren desafioek protagonismoa hartu dute azken urte hauetan. Iraunkortasuna, klima-aldaketa eta berrikuntza gako-gaiak dira eta, gaur egun, gure lurraldearen diseinuan eta funtzionamenduan presentzia handiagoa izan behar duten erreferentzia nagusiak dira.

## B.1. Iraunkortasuna eta lurraldea

Iraunkortasun kontzeptuaren funtsa ondorengo belaunaldiei euren premiak gogobetetzeko ahalmena mugatuko ez duen ingurunea uztea da. Horretarako, baliabide naturalak modu arduratsuan kudeatu behar dira, baliabide ez-berriztagarriak agortu ez daitezzen, eta aldi berean, baliabide berriztagarriak euren berriztapen-tasa baino erritmo txikiagoan aprobetxatu behar dira, mugagabe iraun dezaten. Baliabideen kalitatea ere bermatu egin behar da, euren erabilera-ahalmena gal ez dezaten, eta hondakinen eta kutsatzaileen sorkuntza mugatu behar da, ekosistema naturalek haiek xurgatzeko duten ahalmena gainditu ez dezaten.

Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategiak ekintza-programa zabala planteatu du hurrengo hamarkadan EAEko arazo nagusiak soluzio-bidean egon daitezzen.

Iraunkortasuna esparru zabalago batean txertatutako helburu gisa planteatzen bada soilik izango da posible. Esparru horretan sartzen dira kohesio soziala eta ongizatea eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko behar diren baliabideak eskuragarri izatea bermatzeko gai izango den aberastasuna sortzea. Iraunkortasuna ez da ingurumen-politika hutsen emaitza, horiek ere garrantzi handia duten arren iraunkortasun-arloan.

Lurralde-eredua eta lurralde- eta hirigintza-ekimenak gako-elementuak dira garapen iraunkorra

lortzeko, izan ere, haien ekarpenak funtsezkoak baitira sektoreko politikak benetan bideragarriak eta eraginkorrak izan daitezzen.

Epe luzera benetan iraunkorra izango den garapena lortzeko aurre egin behar diegun desafio askok lotura zuzena dute lurralde- eta hirigintza-arazoekin.

Lurzoruaren artifizializazioa osagai edo elementu kritikoa da gure lurraldean. Gutxi gorabehera, EAEren azaleraren % 7,3 azpiegiturei eta eremu urbanizatuari dagokie gaur egun. Atentzioa ematen du portzentaje hori handitzen ari den abiadurak. 1997tik 2006ra bitartean hazkunde demografikoa % 1 baino txikiagoa izan zen eta etxebizitza-kopurua % 18 hazi zen.

Hazkunde horren aurrean, hiri-asantamenduen dentsitatea lehengoratzeko, eraikitako eremuen hedapen-prozesuak mugatzea eta eraikitako eremuak berritzeko eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko ekimenen erdigune bihurtzea proposatzen da. Ikuspegi hori funtsezkoa da iraunkortasunerako, landarediaren euskarri diren lurzoruak suntsitzea ekiditen duelako, hondakinen eta baliabide estrategikoen, esaterako, uraren kudeaketa hobetzeko aukera ematen duelako, motor bidezko joan-etorri edo desplazamenduen premia murrizten duelako eta garraio kolektiboko sistemen erabilera errazten duelako.

Hiri-forma edo zenbait erabileraren kokapena funtsezkoak dira garraio kolektiboa ibilgailu

privatuari nagusitzeko eta bide berrien premia murrizteko.

Aldaketa handiei aurre egin behar dien nekazaritza-guneen kudeaketa aktiboa, natura-guneen arteko lotura eta lurraldeko esku-hartzeetan paisaia-ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekimenak dira biodibertsitatea berreskuratzeko eta baita oinarrizko baliabideak eskuragarri izatea bermatzeko, arriskuak prebenitzeko eta lurraldearen erakargarritasuna eta herritarren bizi-kalitatea sustatzeko funtsezkoak diren ziklo naturalak berrezartzeko ere.

Garraio, energia, natura-gune, kohesio sozial, hondakin-kudeaketa, ur-hornidura eta beste hainbat gairen inguruko politikak benetan eraginkorrak eta bideragarriak izateko, ezinbesteko baldintza da aurrez adostutako eta iraunkortasun-helburuak lortzera zuzendutako lurralde- eta hiri-eredu baten ondoriozkoak izatea. Iraunkortasunari lotutako alderdiak indartzea da LAGen Berrazterketa honen oinarrizko helburuetako bat.

## B.2. Klima-aldaketaren desafioa

Giza jatorriko klima-aldaketa, berotegi-efektuko gasak atmosferara isurtzeak eragindakoa, datozen hamarkadetan ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arloetan mehatxu larriak sortzeko ahalmen handiko desafio gisa ageri da. Tenperaturak igotzea, itsas mailak gora egitea eta uholde eta lehorteeak eta beste fenomeno batzuek eragin handiagoa izatea dira aldaketa horrek ekar ditzakeen arriskuak batzuk.

Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Planaren arabera, garraio-sektoreak EAEko berotegi-efektuko gasen % 25 inguru sortzen du, ibilgailu pribatuaren erabileragatik gehienbat. Europako hainbat hiri-eremuri buruzko datuek adierazten dute garraio kolektiboko sistemen zuzkidura ona duten dentsitate handiko hiriguneetan ibilgailu pribatuarekin egiten diren motor bidezko ohiko desplazamenduen % 60 garraio kolektiboko sistemetan egin daitezkeela. Beraz, funtsezkoa da lurralde-estrategiek garraio kolektiboko sistematik sustatzea. Zentzu horretan, LAGen Berrazterketak aldirietako tren-sistematik indartzeko, garraio kolektiboko egitura-ardatzak garatzeko, garraio-mota horietara zuzendutako hiri-ereduak diseinatzeko, garraio-sistematik egituratzeko ikuspegi orokor gisa sistema intermodalak planteatzeko eta garraio kolektiboko sistematik geltoki eta sarbideen inguruan hirigune-esparruak sortzeko proposamenak planteatzen ditu. Oinezkoentzako eta bizikletentzako sarea hedatzea eta hirigune tradizionalak indartzeko

eta hiri-dentsitatea handitzeko politika funtsezko osagaiak dira mugikortasun motorizatuaren premia murrizteko.

Lehentasunezko gomendio gisa, LAGen Berrazterketak garapen berrietan hiri- eta arkitektura-diseinuko printzipio bioklimatikoak txertatzeko premia planteatzen du, lehendik eraikita dauden guneak gehieneko eraginkortasun energetikoko baldintzetara egokitzeko eta isurpen kutsatzaileak minimizatzeko. EAEn atmosferara isurtzen diren berotegi-efektuko gasen % 17 bizitegi-sektoreak eta hirugarren sektoreak isurtzen dituztela kalkulatu da eta kopuru hori % 40 murriztu daitezkeela eraikinak eta eraikitako espazioak ingurunean klima-baldintzetara ahalik eta gehien egokitzera eta isolamendu eraginkorren eta energia-kontsumo txikiko sistemak (argiteria, etxetresna elektrikoak, berokuntza, etab.) erabiltzera zuzendutako diseinuak sartuta.

Murrizketa % 100ekoa izan daiteke elektrizitatearen, fuelaren eta gasaren hornidura konbentzionalaren ordezkari eguzki-energia eta energia eolikoa atzitzeko sistemak ezartzen badira etxeko hornidurarako eta hirugarren sektoreko hornidurarako. Gaur egun, energia berriztagarri ez-kutsatzaileak ez dira iristen EAEn kontsumitzen den energia guztiaren % 5era. Haien presentzia handitzeko aukera bat da eraikitako espazioetan txertatzea, eta abandonatzeko zorian dauden eta erabilera hori bateragarria den nekazaritza-guneetan energia-ekoizpeneko eremuak aurkitzea.

Landa-lurzoruaren erabilerak funtsezkoak dira klima-aldaketari lotutako arriskuak arintzeko ekimenetan. Basoak karbono-hustubideak dira, berotzea eragiten duten gasen pilaketa murrizten dutenak. Euskal Autonomia Erkidegoko basoek urtean 2 Mt CO<sub>2</sub> atxikitzen dituztela kalkulatu da. Soro, belardi eta asentamenduak, bestalde, isurpen-iturri izan dira. Baso-masak handitzea eta hiri-orbanaren hedapena prebenitzea ezinbesteko estrategiatzat jotzen dira kutsatzaile osoa murrizteko eta gure lurraldea gerta litezkeen klima-aldaketetara hobeto egokitzeko.

Berrirohanetzatzeak, urbanizazioa mugatzeak eta eremu kalteberetan, esaterako, kostan edo uholde-arriskua duten eremuetan erabilerak kontrolatzeak arriskuak —esaterako, ur-eskasiaren, arrisku naturalen eragin handiagorearen eta landare-estaldura murriztu edo aldatzearen ondoriozko biodibertsitate-galeraren arriskuak—. arintzeko aukera emango dute.

### B.3. Berrikuntza eta lurraldea

Epe luzera, erronka berri horientzako erantzun bakarra berrikuntza da. Gauza berriak egitea edo lehendik egiten genuena beste modu batean egitea da etengabe aldatzen ari den testuinguruan iraunkortasun-, lehiakortasun- eta kohesio-helburuak lortzeko modu bakarra.

Berrikuntzan arrakasta lortzea prozesu konplexua da, ez baitago faktore bakarraren mende, batzuetan gutxi definituta dauden aldagai askoren mende baizik. Hezkuntza, gizarte-balioak, kapital-erabilgarritasuna eta enpresa- eta administrazio-esparrua beharrezko faktoreak badira ere ez dira nahikoa.

Faktore horien artean, lurraldeak leku berezia hartzen du. Gainerako berrikuntza-faktoreak ez bezala, lurraldea da deslokalizatu ezin daitekeen elementu bakarra. Nortasun-, desberdintasun- eta lehiakortasun-arloan gero eta aukera garrantzitsuagoa da lurraldea. Ekonomia berriaren aktibo ukigarriak eransten ditu eta, horretarako, funtsezkoak dira berrikuntzarako gakoak diren zenbait faktore, hala nola, talentua eta enpresa berritzaileak erakarri eta finkatzeko eta beste gune batzuekin modu aberasgarrian konektatzeko ahalmena, eta baita garraio-sistema eraginkorrak, kalitatezko paisaia eta espazio naturalak eta bizi-eta jarduera-esparru erakargarri eta iraunkorrak izatea ere.

Euskal Hiria Eskualde Hiria Berrikuntza Ekosistema bihurtzeak EAEen berrikuntza-faktore horiek sustatzeko eta gure lurraldea eta gure ekonomia-jarduerak egoera berrietara moldatzea errazteko proposamena darama berarekin.

Berrikuntza Ekosistemak berrikuntzak sortzeko zentro izateko bokazioa duten lurraldeak dira. Ekosistema naturalak bezala, Berrikuntza Ekosistemak gizarteari egoera aldakorretara moldatzeko aukera eskaintzen dioten aldaketak eta berrikuntzak sortzeko guneak dira.

Gizarte-ekosistema horien berritzeko ahalmena zehazten duten ezaugarriak ekosistema naturalen oso antzekoak dira. Dibertsitatea, konplexutasuna, trinkotasuna, kanporanzko irekiera, loturagaitasuna eta elkarloturako aukerak dira espazio sortzaile eta berritzaileak sustatzeko funtsezko faktoreak. Ezagutza- eta ikerketa-guneek, talentua eta sormena pilatzeaz gain, prozesu berritzaileen oinarrian dauden eta hertsiki lotuta dauden "gako-espezieak" dira.

Hiri eta lurralde dinamiko eta erakargarriak dira ekosistema berritzaileen elementu nagusiak, berrikuntza-zentroen kokalekuen inguruko arauak aldatzen ari diren garai honetan. Berrikuntza-gune berriak ez dira jadanik aurreko etapako teknologia-parkeak, zentro historikoak, kostaldeko guneak, landa- eta nekazaritza-paisaiak edo arkitektura bereziko hiriguneak baizik. Nortasuna eta kalitatea duten guneak dira, lana, etxebizitza eta aisialdia errealtate erakargarri, iradokitzaile

eta bizi-kalitate handikoaren zati banaezin gisa txertatzeko gai direnak.

Euskadi Berrikuntza Ekosistema bihurtzeak ezaugarri horiek gure lurraldean garrantzi gorena lortu ahal izateko baldintzak sortzea esan nahi du. Kontua zera da, EAEko lurraldea anitzagoa bihurtzea (bere ekonomian, herritarren ezaugarrietan, gune eta giroen eskaintzan...), bere elementuen arteko eta kanpoaldearekiko loturak areagotzea, gune trinkoagoak, egituratuagoak eta konplexuagoak lortzea, eta ezagutza, sormen eta berrikuntzarako elementu eta nodo berriak garatzea.

#### B.4. Zentro anitzeko Eskualde Hirirantz

Azken hamarkadan, lurraldearen funtzionaltasunean eta antolamenduan joera berriak agerian jartzen dituzten aldibereko bi prozesu bizi izan ditu Euskal Herriak.

Alde batetik, hiriburuen eta beren metropoli-inguruneen hiri-garapena ez da gertatu demografia-hazkundearen eta eraikitako azaleraren baitan soilik. Beren hiri-eraginaren nagusitasunean eta hedapenean gertatu da, batik bat; aldiriak metropoli-eremu muga tradizionaletatik haratago hazi dira eta horien hirugarren sektoreko eskaintzen konplexutasuna eta erakargarritasuna areagotu egin da.

Aldi berean, komunikazio-sistemak hobetu egin dira, pixkanaka-pixkanaka, motorizazio orokorreko testuinguruan. Bidaia-denborak murriztu egin dira eta lurraldearen zati handienetik metropoli-guneetan eta beren inguruetan sortutako nagusitasun-eremu berrietan kokatutako zerbitzuetara iristeko erraztasuna areagotu egin da. Euskal hiriburuen indar funtzional gero eta handiago horrek protagonismoa eta zentraltasuna kentzen die lurraldeko hiriburu tradizional askori, mugikortasun eta irisgarritasun handiagoko testuinguruan.

Tamaina ertaineko hiri garrantzitsuenek beren horniduren kalitate eta aniztasunean eta zerbitzu publiko eta pribatuen eskaintzan hobekuntza-prozesu garrantzitsuak izan dituzten arren,

hiriburuen paper berriak merkataritza, kultura, aisialdi eta pertsona- eta enpresa-zerbitzuen eskaintza askoz anitzagoa, zabalagoa, erakargarriagoa eta espezializatuagoa eragin du. Hiri ertainetako eskaintza konbentzional eta mugatua goek oso zail dute erakarpen-elementu horrekin lehiatzea. Hirugarren sektoreko eskaeren gero eta parte garrantzitsuago bat, lehen hiri ertainetan eta eskualde-buruetan egiten zena, hiriburuetara lekualdatu da orain. Hiri ertainek tradizionalki izan duten zentraltasuna galtzeko arriskua dakar aldaketa horrek.

Prozesu horri lotutako polarizazio-arriskuen aurrean, EAEkoa bezalako hiri-sistema orekatua eta zentro anitzekoa indartzeko aukera agertzen zaigu. Zentro aniztasuna da LAGen ekarpen nagusietako bat eta baita gure lurraldearen indargune garrantzitsuenetakoa ere. Hiri-sistemaren egitura horri eustea bermatzea funtsezkoa da aldaketa-eta berrikuntza-etapa berrian. Euskadiren hiri-dentsitate handiak, komunikazioak hobetzeak, hiri ertainen espezializazio ekonomikoak eta haien arteko gero eta erlazio handiagoak, hiri-sistema osoa zentro anitzeko hiri-sarean eta gaur egungoa baino anitzagoan eta potentzial handiagokoa eratzeko baldintzak sortzen dituzte.

Euskal Hiria kontzeptuak euskal eskualde-hiria adierazten du. Paisaia, ingurune fisikoa, landa-eta hiri-ingurunea, euskal hiriburuen arteko eta euskal hiriburuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-sistema osatzen duten hainbat tamainatako gainerako hiriguneen arteko erlazioak


eta osagarritasunak jasotzen dituen lurraldeari buruzko ikuspen integratuari dagokio kontzeptua.

Euskal Hiria etorkizuneko proiektu gisa ulertzen da, euskal lurraldearen lehiarako benetako abantailetan oinarritzen den eta, gaur egun, Europako ia herrialde guztiek partekatzen dituzten lurralde-helburuen ildoan dagoen proiektu gisa. Honako hauek dira helburuak: eskualde-hiri deitu diegun errealitate berri horiek eratzten dituzten asentamenduen arteko zentro aniztasuna, nortasuna eta osagarritasuna.

Zentro aniztasunak indarra ematen dio hirigune bakoitzari bere potentzialtasunetatik abiatuta eta aukera handiagoak sortzen ditu, elementu bakoitza banaka hartuta baino gehiago osotasunean hartuz gero eratzten den egitura konplexuagoa, askotarikoagoa, berritzaileagoa eta iraunkorragoa izango baita

Zentro anitzeko Lurralde Sareak sinergiak sorrazten ditu eta lurralde-elementuen aniztasunean eta horien arteko osagarritasunean oinarritzen da. Lurralde Sarearen kontzeptuak abantaila asko eskaintzen dizkio Euskal Hiriari, herri edo hiri bakoitzak, beren interesak alde batera utzita, lurraldearen garapen-etapa berriak eskaintzen dituen ekipamendu, zerbitzu eta aukera-sorta eskuratzeko aukera duelako. Euskadi Lurralde Sare bihurtzen ari da. Sare hori, oso garatua dagoen eta gero eta erlazio hertsia duen zentro anitzeko hiri-sistemak osatzen du, metropoli-eremuak, hiri ertainen sistemak eta landa-eremuak





bere barnean hartzen dituenak. Leku bakoitzaren nortasuna osotasunak eskaintzen dituen aukerekin bateratzen duen lurraldea da.

Emaitza, zentro anitzeko hiri-egitura integratua da, masa kritiko handiagoarekin, giro- eta aukera- eskaintza askotarikoagoarekin eta proiektu handizaleagoak garatzeko ahalmenarekin. Egitura horretan, zentro, funtzio eta jardueren mugak gero eta lurralde zabalagoetan eta anitzagoetan hedatzen dira, lan-merkatu bakarra eta lotura estuagoko eguneroko espazioa sortuz.

Maila altuko eta zentro anitzeko hiri-eremu handi gisa funtzionatzen duen espazio gisa egituratzea da EAEn garapen globala sustatzeko aukera nagusietako bat.

Hiri nagusien tamainaren eta hiri-mailaren eta haien mendeko lurraldearen garapen orokorraren arteko korrelazioa zuzena da. Maila altuko hiri-eremuek inbertsioak eta berrikuntzak erakartzeko ahalmen handiagoa dute. Goi-mailako zerbitzuak ezartzea, balio erantsi handiagoko jarduerak agertzea, hiri-eskaintzaren erakargarritasuna areagotzea eta sare globaletan integratzea faktore erabakigarriak dira testuinguru ekonomiko berrian, eta zuzenean daude lotuta goi-mailako hiri-nukleoak izatearekin. Gaur egun, hiri-nukleo handiak ez dira, lehen bezala, ingurunekeo baliabideak xurgatzen dituzten elementuak. Euren eraginpeko eremua garatzen laguntzeko elementu bihurtu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eskala funtzio eta zentro ekonomiko globalak hartzen dituzten munduko beste hiri-eremu batzuen antzekoa da, hala nola, Stockholm, Frankfurt, Brusela-Anberes, Seattle, Sacramento edo Vancouverren antzekoa, horiek eta EAEk oso antzeko tamaina demografikoa baitute.